

BADAKIZU  
HIRUROGEI ARTE  
ZENBATZEN?

## **PERTSONAIAK**

AMA: Bizirik irauteko eginbeharrez itota irauten duen 30 urteko emakumea. Bihotza alabaren erritmora jarri nahi du baina azkarrago doakio ezinbestean. Bere burua da lehentasunen zerrendan azkena. Minutu batek 60 segundu dituela badaki.

ALABA: Munduan gertatzen den orori garrantzia emateko denbora mantsotzen duen 6 urteko neskatua. Dena egin nahi du bere kabuz eta gauza asko daki, baina gehiago jakin nahi du. Igandeak maite ditu eta 60 arte daki zenbatzen.

-----

## **SINOPSISIA**

Nola hautematen da errealitatea denborak ez badu denentzat berdin irauten? Gaur edozein egun da, ez da igandea. Errutinak hartu du berriro ere ama-alaba hauen gosariko mahaia eta hortxe hasi da segunduen aurkako desafioa. Denborak ez du oraindik esanahirik alabaren hiztegian, baina ez du eutsi nahi amak nahigabea ematen dion definizioari, denbora ez baita existitzen bere horretan. Lanak helduena itotzen duen bitartean ari da txikiena hazten eta biok dakite hainbat eta hainbat direla galtzen ari diren uneak.

## **1. Agerraldia - Eguna hasi da**

*Ama eta alaba etxeko egongelan daude. Trastoz beteriko mahai batean marrazki bat egiten ari da patxadaz alaba, tartean behin katilutik zerealak hartzen dituelarik. Ama mahaia jasotzen ari da azkar batean, handik eta hona, larri eta urduri, telefonoa sorbaldan eutsita bere amarekin elkarrizketa bat duen bitartean. Nabaria da daramaten erritmo desberdintasuna.*

**AMA:** (Bizi) Bai ama, badakit, ez hasi betikoarekin, ahal dudana egiten dut. 20 minutu barru hantxe izango gara, ados? Bai, 20 minutu, gu prest gaude... (Alabari konplizitatez) Azkar maitia, bukatu zerealak.

**ALABA:** (Konbentzitututa) Marrazkia bukatu behar dut.

*Amak arnasa hartu, alabarengana hurbildu eta katilua eta koilara hartuko ditu ahora emateko.*

**AMA:** Amonaren etxean amaituko duzu ados? Jan zerealak.

**ALABA:** (Zerealak ekidinez) Amonaren etxean ez, amonarentzat da! Orain bukatu behar dut!

**AMA:** (Arnasa botaz) Ados, bukatu, baina jan zerealak, bai?

*Koilarakada ahora hurbildu eta alabak hartu egingo dio bokadu batez. Ahoa beteta marrazkia egiten jarraituko du. Amak katilua utzi eta telefonoa hartuko du eskutan. Mahaitik gauzak jasotzeari utzi gabe.*

**AMA:** (Errepikakor) Bai prest gaude, baina, Maddi zuretzat marrazki bat egiten ari da eta...

**ALABA:** (Garrasika, amonak entzun dezan) Amonaaaaaaaaa zuretzat marrazki bat egiten ari naiz!

**AMA:** (Serio) Bukatu zerealak, Maddi. (Telefonoz) 10:00etan sartzen naiz, larri ibiliko naiz. Zergatik ez naizen lehenago mugitu? Ama, 08:00etan jaiki naiz eta gelditu gabe nago. Baina, badakizu hemen minutuek hogeitau segundu irauten dute.

**ALABA:** (Ilusioz) Gazta handi-handi bat marraztu dut amona eta loreak eta zuhaitzak. Ama, animmaliek koloreak ezagutzen dituzte?

**AMA:** Ez dakit maitia, baietz esango nuke.

**ALABA:** Ze kolore gustatzen zaio gehien amonari?

**AMA:** (Pentsatu gabe) Urdina.

**ALABA:** Eta zuri?

**AMA:** Niri... urdina ere bai.

**ALABA:** Urdina argia edo iluna?

**AMA:** Biak maitia, berdin zait. (Telefonoz) Gaur orduan eguna pasako du zurekin. Ni ez naiz bazkaltzera iritsiko, baina lankidearekin hitz egin dut eta lehenago aterako naiz elkarrekin afaltzeko, ados? 20:00ak aldera.

**ALABA:** Zer afalduko dugu ama?

**AMA:** (Desesperatzen hasita) Martxa honetan zerealak. (Telefonoz) Ez ama, broma da, nola afalduko ditugu zerealak? Zerealak jaten ari delako, beno jan nahian... Bah, igual du, utzi! Aukera baduzu dendatik pasa eta hartu afaltzeko zerbait, gero emango dizut dirua, bai? Bai emango dizut, ez hasi.

**ALABA:** (Ozen) Amona, gero kontatuko didazu xaguen istorioa? Amonak beti kontatzen dizkit xaguen istorioak: xaguak ikastolan, xaguak Kilometroetan... Xaguek badakite euskaraz, ezta ama?

**AMA:** (Lehor) Bai. (Telefonoz berriro) Ez dakit zer egingo duzuen, euria dago iragarrita. Ez utzi telebista asko ikusten ados? Ohitura hori kentzen saiatzen ari naiz. Bai, badakit ondo pasatzen duzuela elkarrekin eta dena ez dela planifikatu behar eta bla bla bla... (Gogoratu) Ah eta pasa bazaitezke, mesedez, Txerrimuñotik!? Paper batzuk utzi nituen. Eskatu Joneri, hantxe izango da, ziur. (Nazkatuta) Aix, ama, ez hasi! Jende jatorra da. Ba bai, merezi du. Gure artean elkartu behar gara eta hitz egin eta gauzak pentsatu, bestelako mundu bat irudikatu. Hau ez da betirako, aitzen? Gauzak ez dira horrela,

gauzak horrelaxe daude. Gorka Urbizuk ere esaten du. Ez duzu entzun? Zuk ere jakin beharko zenuke. Eta bitartean, ba...

**ALABA:** (Pozik) Bukatu dut ama!

**AMA:** (Automatikoki) Oso ondo, maitia. Gosaria?

**ALABA:** Ez, marrazkia!

**AMA:** (Hasperen egin eta etsita) Oso ondo, ba, jaso margoak eta jantzi zapatak.

*Alaba zutitu egingo da salto batez eta margoak jasoko ditu. Amak mahaiko azkeneko gauzak jasoko ditu eta atzeko pila utzi, katilua eta marrazkia izan ezik.*

**AMA:** (Telefonoz) Eskegiko dut bale ama? Oraintxe ikusiko dugu elkar. Zapatak jantzi eta bagoaz. Orain arte! Eta eskerrik asko!

*Alaba, zapatak hartuta, izkinean eseriko da eta janzten hasi. Amak gauza bera egingo du, aulkian, ordea. Elkarrenganako begiradek indar handia dute instant honetan, lokarrietatik elkarren begietara eta buelta egiten dute etengabe.*

**ALABA:** (Kontzentratuta eta mantso) Lehenengo bi lokarriak gurutzatu, hau azpitik sartu eta tira. (Amari begiratzuz) Ama, nik badakit lokarriak bakarrik lotzen.

**AMA:** (Begiratzuz) Oso ondo ari zara.

**ALABA:** (Berera itzulkiz, mantso) Untxiaren belarria egin eta beste lokarriarekin beste belarria. (Amari begiratzuz) Eta orain gurutzatu egin behar dira, ama.

**AMA:** (Alaba begiratzuz eta lotzen jarraituz) Hori da, tira fuerte ez askatzeko. (Erakutsiz) Horrela: bat, bi eta hiru. Tiiiiira!

*Biek batera egingo dute azken korapiloa. Amak bi zapatak lotu ditu, ordea, eta alabak bakarra. Zutitu egingo da eta alabaren ondoan jarri zutik, bigarrena nola lotzen duen begira.*

**ALABA:** Ama, nik 60 arte dakit zenbatzen. Badakizu minutu bat 60 segundu kontatzea dela?

**AMA:** (Miresmenez) Bai, badakit, maitia. Zenbat gauza ari zaren ikasten!

**ALABA:** (Pozik) Baiiii, amonak erakusten dizkit. Askotan 60 arte kontatzen dugu eta gero berriro, eta berriro, zu iristeko minutuak zenbatzen ditugunean.

*Amari min eman dio komentarioak eta isilunera eramango du. Alaba, normal, lokarriak lotzen. Deserosotasuna hausteko berdinean jarraituko du amak.*

**AMA:** Lotu duzu ezkerrekoa?

**ALABA:** Ari naiz. Untxiaren belarria...

**AMA:** (Pazientzia galdata) Lagunduko dizut?

**ALABA:** Ez, badakit bakarrik egiten.

**AMA:** Berandu goaz maitia. Lagunduko dizut.

*Amak makurtzeko saiakera egingo du eta lokarriak ia hartu.*

**ALABA:** (Kasketa) Ezetz! Nik egin nahi dut ama!

*Ama berriro zutitu eta arnasa hartuko du. Denbora ez galtzeko berokiak eta boltsoa hartzera hurbilduko da pertxerora, berea eta alabarena hartuko ditu. Alaba abesten ari da lotzen ari den bitartean. Ama, gauzak hartutakoan, leku berera itzuliko da. Oina mugitzen hasiko da gauza guztiak eskuan dituela.*

**ALABA:** (Oinari begira) Ama, urduri jartzen nauzu!

**AMA:** Barkatu!

*Amak hanka mugitzeari utziko dio baina urduritasuna eskuetatik eta burutik irtengo zaio. Alabak kantari jarraituko du lokarriak lotzen. Ama ordulariari begira, begirada ezin leku finkoan mantendu; ordularira eta alabarengana eta ordularira eta atzera eta alabarengana eta ordularira.*

**ALABA:** Ama!

**AMA:** Kitto?

**ALABA:** Ez. Xaguek ere presa izaten dute?

**AMA:** (Desesperatuta). Ba ez dakit maitia, zer axola du horrek orain? Katuengandik ihesi dabiltzanean, agian.

**ALABA:** (Barrez) Ze ona ama, ze azkarra zaren! Noski, xaguek, gainera, ez dituzte lokarriak lotu behar, oinutsik dabilta. Eta, zuk badakizu 60 arte zenbatzen?

**AMA:** (Desesperatuta) Bai maitia. (Oso azkar) Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi...

**ALABA:** Hain azkar ez ama, polikiago egin behar da. (Mantso) Bat, bi, hiru, lau...

**AMA:** (Moztuz) Ez daukagu hainbeste denbora maitia. Ezta minutu bat ere ez daukagu.

**ALABA:** Puskatu dezagun ordularia. Amonak kontatu zidan ipuin batean xaguek ordularia puskatzen zutela eta...

**AMA:** Hori ezinezkoa da, ez du ezertarako balio. Eta ez daukagu orain ipuinetarako denborarik. Hau errealitatea da eta hemen denbora aurrea doa beti. Ezin da atzera egin! Ulertzen? Denbora pasatzen da eta galdu duzuna galdu duzu, punto! Ulertzen?

**ALABA:** Bai. Lotu dut lokarria.

**AMA:** Oso ondo. Jantzi berokia.

*Zutitu eta amak berokia jantziko dio.*

**ALABA:** Ama!

**AMA:** Zer?

**ALABA:** Izan dezakegu etxean xagu bat?

**AMA:** Ez esan txorakeriarik. Nola izango dugu xagu bat etxean. Falta zena!

**ALABA:** Amonak esaten du...

**AMA:** Lanera joan behar dut Maddi. Atzera kontua hasi da. Goazen!

*Eskutik heldu eta aurrera tira egingo dio, alabak eutsi egingo dio beste aldera, marrazkia hartu nahi du eta.*

**ALABA:** Itxoin, amonaren marrazkia hartu behar dut!

**AMA:** Emango diozu bihar

**ALABA:** (Tinko) Ez, gaur eman nahi diot.

**AMA:** Egingo duzu berekin beste bat.

**ALABA:** (Eutsiz) Ezetz ama! Amonarentzat da eta eman nahi diot.

**AMA:** (Oihuka) Maddi, azkeneko aldiz, goazen!

**ALABA:** (Garrasika) Marrazkia nahi dut!!!

**AMA:** Goazen!

**ALABA:** Ez! Utzi bakeaaaaaaaaan!

*Oihu horren artean elkarri tiraka sortuko dute sokatira. Azkenean, askatu eta alaba mahaiaren kontra jausiko da, katilua marrazki gainera botatzea ekarriz.*

**ALABA:** (Disgustoarekin) Amaa!! Begira zer egin duzun!

**AMA:** (Kezkatuta) Ondo zaude?

**ALABA:** (Negarrari eutsiz) Ez! Nire marrazkia zikindu duzu!

**AMA:** Barkatu maitia, nahi gabe izan da. Gero beste bat egingo dugu ados?

**ALABA:** (Negarrez) Ez dut beste bat nahi. Hau nahi dut, hau nahi nuen. Berezia zen eta orain amonari ez zaio gustatuko.

**AMA:** Gustatuko zaio, ziur naiz! Ez da mundua bukatuko, maitia!

**ALABA:** Bai, bai eta bai! Niretzat bai! Utzi bakean!

**AMA:** Berdin-berdin gustatuko zaio!

**ALABA:** (Haserre eta dezepzionatuta) Ixo! Hau ez da nire marrazkia eta ez zaizu axola! Beti zapuzten duzu dena! Ez duzu marrazkia begiratu ere egin! Beti zabilta korrika! Eta ni zer? Inoiz ez duzu niretzat denborarik. Ez duzu ezer ulertzen! Ez naiz existitzen! Ez zara existitzen! Gezurtera. Ez dakizu zenbatzen, ez dakizu zenbatzen!

*Amak gauzak utzi eta bere altuerara jaitsiko da, belauniko jarriz.*

**AMA:** Sentitzen dut maitia, barkaidazu.

**ALABA:** (Negarrez) Denbora gelditu nahi dut ama. Gelditu ezazu denbora mesedez!

**AMA:** (Triste) Hori ezinezkoa da maitia.

**ALABA:** Zergatik batzuek badaukate eta guk ez?

**AMA:** Denbora guztiontzat da berdina, laztana, baina batzuentzat gutxiago irauten du. (Indarra erakutsiz, alabaren sorbaldak astinduz) Baina hau ez da betirako, aitzen? Ez da betirako, maitia. (Malkoak lehortzen) Bihar 60 arte kontatuko dugu elkarrekin, ados? Eta gero berriro eta berriro. Bihar igandea da.

**ALABA:** Bai! Igandea! Igandetan askoz gehiago maite zaitut ama!

*Amak, minduta, musu emango dio eta zutitu egingo da.*

**AMA:** (Atsekabetuta) Badakit, laztana, badakit!

*Gauzak hartu, zutitu eta martxa egingo dute. Alabak pausoa geldituko du.*

**ALABA:** Eta zer egingo dut marrazkiarekin?

**AMA:** Eman amonari eta xagu batek busti duela kontatuko diogu?

**ALABA:** (Irribarre bihurritz) Ados.

*Badoaz.*

**ALABA:** Ama!

**AMA:** Bai?

**ALABA:** Badakit zer nahi dudan afaltzeko.

*Belarrira esango dio*

**AMA:** Mmmmmmm... ze goxoa!